

Boluntarioen Nazioarteko Eguna

Abenduak 5

***Boluntario-ekintza** antolatua da irabazi-asmorik gabeko erakunde baten barrenean pertsona fisikoek modu altruista eta solidarioan egiten dutena, esku hartuz pertsonen egoeraren eta gizartearen errealitatearen gainean, aukerak nahiz eskubideak urratu, ukatu edo falta direnean, bizi kalitate hobea eta kohesio eta justizia sozial handiagoa lortzeko; bertzela errateko, antolatutako herritar aktiboan adierazpidea da.*

Nazioarteko Egun honen izendapena Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1985eko abenduaren 17an hartutako erabakiaren bidez ezarri zen. Ordutik honat, gobernuak, Nazio Batuen sistema eta erakunde zibilak mundu osoko boluntarioekin elkartu dira, arrakasta handiz, data honetan egun berezi hau ospatzeko.

Urte hauetan guztietan, Boluntarioen Nazioarteko Eguna estrategikoki erabili da; herrialde anitzek aprobetxatu dute boluntarioek egin duten ekarpena azpimarratzeko, zehazki, Milurtekoaren Garapen Helburuei begira eginiko lanetan. Izan ere, Helburu horietan denbora muga bat finkatu zen zenbait arazoren aurka borrokatzeko: pobrezia, gosea, eritasunak, analfabetismoa, ingurumenaren hondamena eta emakumeek jasaten duten diskriminazioa.



BOLUNTARIOEN LANAK BALDINTZA HAUEK BETE BEHARKO LITUZKE

- **Musu truk egina izatea:** boluntarioak ez du laguntzen onura bat edo sari bat lortzeko.
- **Nahita egina izatea:** boluntarioak laguntza ematen du xede eta helburu positibo (bertzearen egoera aldatzea, hobetzeko) eta legitimo baten alde (boluntarioak badu gaitasunik aski laguntza emateko eta bertzearen nolabaiteko adostasuna, laguntza ematen uzten diona).
- **Justifikaturik egotea:** laguntzaren onuraduna izanen denaren egiazko behar bati erantzuten dio. Ez da denbora-pasa huts edo josteta klase bat, bertzerik gabe; behar bat asetzeko asmoz egiten da, behar hori benetako beharra dela lehendik jakinda.

BOLUNTARIOEN MOTIBAZIOAK

Boluntarioak bi motibazio eta arrazoi nagusi ditu bere ekintza solidarioa egiteko:

- **Arrazoi ideologiko, etiko eta moralak, edo erlijioari lotuak,** eta horiek direla medio bereak balira bezala sentitzen ditu bertze batzuen arazo eta beharrak, eta horregatik zerbait egin nahi du gizartea hobetzeko, gauzak aldatzeko, mundua transformatzeko...
- **Arrazoi pertsonalak,** eta horiengatik du gizartearentzat baliagarria sentitzeko beharra, esperientzia berriak ezagutu eta bizitzeko gogoia, pertsona bezala ikasteko eta garatzeko grina, bertze batzuekin harremanak izan eta lan egitekoa...

Nagusiak diren bi motatako motibazio horiek proportzio desberdinetan konbinatzen dira boluntario bakoitzaren baitan.

Ekintza boluntarioak erran nahi du *EMAN* (denbora, baliabideak, lana, etab.) eta aldi berean *HARTU* ere bai (poztasuna, ikasketak, esperientzia, giza harremanak, etab.).

BOLUNTARIOTZA MOTAK

Boluntariotzan bi arlo handi bereizten ahal ditugu:

-Gizarte-ekintzako boluntariotza (zure herrian egiten dena)

-Garapenerako lankidetzan egiten den boluntarioria (gehienbat garapen bidean dauden herrialdeetan gauzatzen dena, nahiz eta zure herrian ere gerta daitekeen).

Eta horiei biei bertze boluntarioria mota bat gehitu behar zaie: ***boluntarioria birtuala eta/edo ziberekintzak***.

- ***Gizarte-ekintzako boluntarioria***

Gizarte-ekintzako boluntarioria egiten dutenek harreman zuzena dute gizartearen baztertuak gelditzeko arriskuan daudenekin eta/edo haien lan egiteko esparrua herri mailakoa da. Boluntario izatea erabaki aitzinetik, komeni zaizu zerbait jakitea kolektibo eta/edo ekintza eremu bakoitzaren arazoei buruz, baita haiekin aritzen diren boluntario elkartearen lanari eta kasu bakoitzerako egokiena den boluntario profilari buruz ere.

Informazioa jaso ondotik, eta gizarte-ekintzako boluntarioria zein esparrutan eta zein erakudetan inplikatu nahi duzun erabaki eta gero, garrantzitsua izanen da prestakuntza espezifikoa hartzea (jeneralean, erakundeek beraiek ematen diete boluntarioei).

Gizarte-ekintzako boluntarioria barrenean, lan egiteko ekintza-esparru eta kolektibo desberdinak daude.

- ***Garapenerako lankidetzako boluntarioria***

Zer da garapenerako lankidetzak?

Oro har eta aisa entenditzeko, garapenerako lankidetzak erraten zaio Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen artean esperientziak eta baliabideak trukatzeko asmoz gauzatzen den nazioarteko ekimenen multzoari; ekimen horien bidez helburu komun batzuk lortu nahi dira, elkartasuna, ekitate, efikazia, denon interesa, jasagarritasuna, eta ardurakidetzak izanik horretarako oinarriko irizpideak.

Garapenerako lankidetzak funtsean lortu nahi du pobrezia, enplegu gabezia eta gizarte-bazterkeria errotik desagerraraztea; jasagarritasunera iristea; eta garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalerako mailak handitzea modu iraunkorrean.

- ***Boluntariotza birtuala eta ziberaktibismoa***

Boluntariotza birtualean teknologia berriak erabiltzen dira boluntarioek zuzenean bertan egon behar ez duten kasuetan: entitateekin komunikatzeko, kanpainak egiteko, hedapen lanetarako, zalantzei erantzuteko, testuak idazteko, itzulpenak egiteko, etab. Materiala hedatzea edo kanpainak egitea denean, horri ziberaktibismoa erraten zaio (teknologia berriak erabiliz parte hartzea protesta eta salaketa ekintzetan, adibidez, sinadurak biltzen, online zabaltzen, kanpainari atxikitzeke, etab.)

HAU EZ DA BOLUNTARIOTZA

- Familiako norbaiti edo adiskideren bati laguntzeko, edo bizilagunari, edo bihotz-zabaltasunez, halako batean edo tarteka-tarteka egiten diren ekintzak.
- Harreman zibil baten ondorioz egiten diren ekintzak, edo lan, funtzionariotza nahiz merkataritza harreman bat dela medio egiten direnak.
- Obligazio pertsonal edo betebeharr juridiko baten ondorioz egiten den edozein ekintza.
- Merezimenduak irabazteko edo lanpostu bat lortzeko, norbaitek bere lanean edo bestela egiten dituen ekintzak.
- Eskulan merkea.
- Politika arloko boluntariotza.
- Elkarri laguntzeko taldeak.

NOLA HASI BOLUNTARIO LANEAN?

1. Egizu gogoeta eta aurkitu zer arrazoi duzun.

Joan hitzaldietara, solas egin boluntario lanean ari direnekin.

2. Begiratu zure inguruan

Ikusten dituzun beharretan edo desberdintasunetan zeinek kezkatzen zaituzte gehien? Zein ekimenek sorrarazten dizute laguntzeko gogoak?

3. Zehaztu zure parte hartzea

Zenbat denbora emanen zenuke boluntario lanean? Nahiago zenuke elkartasun lan hori zure etxetik hurbil egin? Erosoagoa da zuretzat GKEa zure lantokitik hurbil izatea?

4. Bilatu zure GKE edo elkarte

Bilatu ahal duzun informaziorik gehien interesatzen zaizkizun entitateei buruz, eta deitu haietan boluntario lanaz arduratzen direnej, hitzordua finkatzeko. Pentsa ezazu zer lan egin nahiko zenukeen.

5. Has zaitez boluntario lanean

Eskualdeko boluntario sarea

Bortziriak:

Elkarrizan: 635 005 266

Baztan-Malerreka-Bertizarana-Urdazubi-Zugarramurdi:

Bidelagun: 948 58 13 27 – 679 435 174